

Euskal nortasuna

Galde andana bat egin dira, ikertu nahiz Euskal Herriari buruzko atxikimendua, eta zer nolako gizartea nahi dugun irakasuntza eta mintzairaren aldetik.

- *Euskalduntzat daukazu zure burua?*
- *Nola senditzen zara, euskaldun ala frantses?*
- *Zure ustez, geroan, zein hizkuntzetan mintzatu behar litaike Iparraldean?*

Euskal nortasunaren kontzientzia

Euskalduntzat daukazu zure burua ? (%)

Euskaltasuna	Ipar-alde	BAB	Lapurdi barnea	Nafar B. Zuberoa	Euskal dun	Erdal dun
Anitz. Nahikoa	53	41	59	74	93	36
Doi bat.	24	26	22	18	6	30
Guti. Deus ez.	21	29	18	7	1	29

Iturria : V. inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritza eta EEP, 2011.

Ipar Euskal Herrian orokorki jendeen erdiek (%53) beren burua euskalduntzat daukate, euskaldunak gehi elebidun hartzaileak baino askoz gehiago (%30,5). Euskalduntasun epela edo ahula dutenen heina erdaldunena baino askoz ttipiagoa da (%45 versus %69,5). Neurri berdintsua ageri da adin guzietan.

Ezberdintasun handiak badira kostaldetik barnealdera. BABn %41ek euskalduntasun handia edo nahikoa adierazten dute, bitarteko Lapurdin %59k eta Nafarroa Beherean eta Zuberoan (%74). Ageri da hizkuntza gaitasunak eragin zuzena duela euskal nortasun kontzientziari begira. Alabaina ezberdintasun handia ageri da hizkuntza gaitasunaren arabera: euskara dakitenak biziki atxikiak dira herriari (%93). Aldiz erdaldunak arrunt epelak dira: %36 alde, %29 guti edo deus ez.

Euskaldun ala frantses? (%)

Nortasuna	Ipar-alde	BAB	Lapurdi barnea	Nafar B. Zuberoa	Euskal dun	Erdal dun
Euskaldun	11	7	11	19	38	2
Euskaldunago	11	6	14	18	22	7
Biak berdin	29	25	30	39	32	26
Frantsesago	27	33	24	17	5	35
Frantses	18	26	15	6	1	26

Iturria : V. inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritza eta EEP, 2011.

"Morenoren galde" famatuaz baliatu gara gure baitan dauzkagun bi nortasunak lehia ezartzeko. Galde bat: *Nola sentitzen zara?* Sei erantzun posible :
Euskaldun soilik. Euskaldun frantses baino gehiago. Berdin euskaldun eta frantses. Frantses euskaldun baino gehiago. Frantses soilik. Ez dakit, erantzunik ez.

Nabari da hemen "euskaldun" hitzak "euskal herritar" eranahi duela. Horiek hola euskaldun ala frantses galdegiten delarik, nortasun bikoitza da nagusi euskaldun eta frantsez %67: bi nortasunak berdin %29, bi nortasunak baina euskaldunago %11, bi nortasunak baina frantsesago %27. Nortasun bakarrekook guti dira : %11 euskaldun bakarrik, %18 frantsez bakarrik. Proporzio berdintsua agertzen da edozein adinetan.

Aldiz hizkuntza gaitasunak eragin handia du herritasun gogoari begira. Euskara dakinetan %60 dira gehienik euskal herritar sentitzen direnak. Erdaldunetan %61 dira beren burua gehienik frantses daukatena. Ondorioz euskaldeka herri atxikimendua hizkuntza gaitasunaren arberakoa da. Ohargarri da neurri handian herritarrak euskaldun bezain frantses daukatela beren burua, kasu orotan (29%) eta bereziki Iparralde barnealdean (39%).

Geroko hizkuntzak

Mezua argia da. Kasik aho batez herritarrek pentsatzen dute Ipar Euskal Herrian, euskara eta frantsesa elkarrekin direla geroko hizkuntzak.

Zein hizkuntzatan mintzatu behar litzateke etorkizunean?

	Orotara	Euskaldun	Erdaldun	Bertako	Kanpoko
<i>Euskara hutsean</i>	3	9	1	4	1
<i>Euskaraz eta frantsesez</i>	94	88	95	93	95
<i>Frantses hutsean</i>	2	1	3	2	2

Iturria : V. inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritza eta EEP, 2011.

Edozein aldagai hartuz iritzi nagusia da elebitasunarena, oro har %94 eta berdintsu hiru eskualdetan, adin talde guzietan, euskaldun ala erdaldun, bertako ala kanpoko.

Ba ote da nor edo nor hizkuntza bakarra nahi duenik Ipar Euskal Herriarentzat? Bakar batzu. Euskara bakarrik mintzatu beharko litzakela pentsatzen dutenak dira: %9 euskaldunetan, %6 gazteenetan, %4 hemen berean sortuak direneta. Eta askoz gutiago frantses hizkuntza bakarraren alde direnak: %4 zaharrenetan, %3 erdaldunetan, %2 kanpokoetan, bertakoetan eta Ipar Euskal Herri osoa hartuz.

Laburbilduz erran genezake anitzen gogoan elebitasuna eta nortsun bikoitza direla Ipar Euskal Herriko ezaugarri nagusiak. Euskaldun guztiak elebidunak dira. Frantsesdun elebakarrek lukete urrats batzu egin behar euskarari buruz. Hori gertatuko da euskaltasuna aberasgarria eta erakargarria agertuko zeien neurrian.

Erramun Bachoc, 2013-01-08.